


de hacer frente a la mayor amenaza que se ha cernido sobre el planeta en los últimos 65 millones de años. Y aunque el cambio personal no es suficiente, es necesario para obligar a las instituciones a que cambien su política.

Este libro nos aporta una buena base para orientarnos en la compleja selva actual. Aunque a veces hemos tenido la impresión de que el autor nos pinta un panorama excesivamente unicolor, sin atender demasiado a los matices. Nos preguntamos si planteamientos como los de Piketty en *El Capital en el siglo 21* o Polanyi *The Great Transformation* no hubieran enriquecido su marco teórico. Nos ha sorprendido que el autor no cite a la conocida Naomi Klein, muy crítica con la globalización y el capitalismo y que, además, hace interesantes propuestas de acción y de lucha, muy en la línea del autor.

Xabier Insausti



GABILONDO, Joseba
Populismoaz. Subiranotasun globala eta euskal independentzia

Tafalla : Txalaparta, 2017
 289 or. ; 19 cm
 ISBN: 978-84-17065-07-2

Michiganeko estatu osoan bizi den euskaldun bakarra izatearen sentsazioa aipatzen du sarritan Joseba Gabilondok. Lurretik kanpoko begiradarekin ikusten dituela Euskal Herriko kontuak. Eta askotan egiten ditu halako joan etorriak bere hausnarketetan, euskal lurretatik kanpotik barrura. Horrela egiten du “Populismoaz: Subiranotasun globala eta euskal independentzia” (Txalaparta, 2017) bere liburuan, modu bikain batean gainera.

Baina Joseba Gabilondo ez da dagoeneko ezezagun bat, bere ibilbidea eta ekarpen intelektuala oparoa da, baita sarritu ere, 2014an Euskadi saria irabazi zuen *New York-Martutene* liburua edo 2015ean Unamuno saria jaso zuen *Globalizazioak eta Erdi Aro berria: diferentzien itzuleraz* lana kasu. Oraingo honetan ere demostratzen du. Txalaparta argitaletxea, bestetik, saiakera berritzaileak eta heterodoxoak ari da argitaratzen, gogoetarako elementu ausartak eta indartsuak mahai gaineratzen, eta jarrera hori ere eskertu behar da.

Liburua, batez ere, mendealdeko gizarteetan ematen ari diren mugimendu populista berrien analisi fina da, gure egungo gizarteak ulertzeko gida ezin hobea. Izan ere, 2008ko krisiaren ostean protesta mugimendu berriak sortu dira, imaginario berritzaileak mobilizatu dituztenak. Protesta eta imaginario berriak –eta krisia bera– globalizazioak azken hamarkadetan eragindako efektuen ondorioak dira, hau da, globalizazioak ekarri duen zatiketa soziala eta kulturalaren ondorioak. Hor kokatzen du Joseba Gabilondok abiapuntua.

Izan ere, eliteen kontrako ezinegona, sumindura, zabaldu da era espontaneo batean, mobilizazio estruktura klasikoetatik aparte hein handi batean: Syntagma, 15M, *Occupy...* Eta 2011ko protesta ziklo berri honetan imaginario berriak agertu dira plazetan, bi ezauga-

rri nagusi dituztenak (Del Amo, 2016). Alde batetik, eliteekiko antagonismoa dugu, eta bestetik, izaera bateratzaileak, komuna eta herritarra dena goraipatzen dutenak, identitate kultural partikular eta politizatuaren gainetik: herria edo %99a, elite edo kastaren kontra. Honek apurketa kultural bikoitza suposatzen du. Alde batetik, mugimendu sozialen aurreko imajinarioekiko, zeinenek dimentsio identitario handia izan duten, batez ere 1960ko hamarkadatik hona; protesta berrietan identitate partikularrak ez dira ondo ikusiak, eta kontzeptzio unibertsalagoak nagusitzen dira, “herria” edota “%99” kasu. Bestetik, bigarren apurketa ere badago, hots, logika kultural postmodernoarekiko: komunaren nabarmentzeak postmodernitatearen zatiketa kulturala gainditzen du, eta horrez gain, eliteekiko antagonismo erradikalak postpolitikaren adostasunezko logikarekin ere apurtzen du.

Agian, izaera bateratzaile hori, komuna, ez da hain esplizitua Gabilondoren testuan, non diferentzien aipamena askotan agertzen den. Baina nago aniztasunaren eta komunaren arteko artikulazioa oso garrantzitsua delakoan: artikulazio berriak ari dira sortzen, diferentziak ez dira egituratzen hain modu identitario edo kultural batean, baizik eta politikoagoak diren moduetan, aldi berean bateratzaileak, zabalagoak, eta eliteekiko antagonistak. Kutsakor kontzeptua izan daiteke Gabilondoren proposamena artikulazio hori deskribatzeko; dena den, bere hurrengo liburuan kontu hauetan guztietan sakontzeko asmoa ei du.

Izan ere, protesta mugimendu berriak eta haien imajinarioak globalizazioak eragindako zatiketa soziala eta kulturala gainditzeko baliagarriak suertatu dira, subjektu politiko berriak edo berriak sortuz. Beste batzuk, langileria kasu, globalizazioak eragindako prekarizazioa, zatiketa eta merkantilizazioa dela eta, arazotsuak suertatu dira (Alonso eta Fernández, 2013); honetan ere Gabilondok analisi sakona egiten du.

Berez, mugimendu eta imajinario berriek bat egiten dute Laclau (2005) bezalako autoreek planteatutako populismoaren ezaugarriekin: gizartearen bi zatitan banaketa antagonikoa, haietako batek zilegitasun osoa aldarrikatzen duelarik (We are 99%). **Liburu honetan Gabilondok hain ahotan dabilen Laclauen hausnarketak jasotzen ditu, noski, eta buelta bat ematen die:** Laclauen proposamenean markoa estatu-nazioa bada, nazionalista-klasiakoa, Gabilondok egungo fenomeno populistak ulertzeko markoa globalizazioa izan behar dela planteatzen du. Populismo berri honek, beraz, globalizazioak prekarizatzen dituen klase sozial ez-eliteko guztiak (ertaina, proletarioa...) egitura bakar batez hornitzen ditu. Populismoa, egun, Gabilondoren esanetan, ez da aukera bat, kondizioa baizik, hots, ekonomiaren, politikaren eta historiaren kondizio ekidinezin bat.

Izan ere, protesta berrien beste ezaugarri bat zera da: berehala bideratu dira plano politikora, partidu populista berriak agertu dira edonon. Joseba Gabilondok bi multzo nagusietan banatzen ditu mugimendu eta partidu populista berriak, eskumakoa edo erreakzionarioa, eta ezkerrekoa.

Alde batetik, beraz, eskumako populismo neonazionalista daukagu. Eliteen kontrako diskurtsoa topatzen dugu hemen, baina aldi berean formulazio neonazionalista bat, askotan nostalgikoa, iragan ideal bati begiratzen diona. Elite neoliberal europar edo globalen kontra apuntatzen du populismo honek, baina baita ere definizio nazionaletik kanpo uzten diren horien kontra, etorkinak, islamistak edo gutxiengoak; biak ala biak nazioaz aprobetxatzen direlarik.

Azken urtetan, batez ere Nancy Fraserrek (2017) neoliberalismo aurrerakoa deitu duenaren eskutik, garatu diren identitatearen politikak (*identity politics*) kontutan hartu behar dira eskumako populismoa aztertzean. Horien inguruko hausnarketa kritikoak zabaldu dira azken urteetan (Del Amo, 2017; Fraser, 2017; Jameson, 1998; Yúdice, 2002; Žizek, 2009). Kritikak, gutxiengoak babesteko politika hauek aldaketa estrukturalak eragiteko kapazitatea galdu dutela dio, postpolitikak xurgatzen dituela, identitatean zentratzeak arlo ekonomikoa alde batera utzi duela, eta horrek guztiak elikatu duela eskumako populismoa, politika horietatik datozen “pribilegioak” gogor salatu duelarik. Joseba Gabilondok ere honen inguruko hausnarketa plazaratzen du.

Bestetik, Joseba Gabilondoren ustez, eta Lacanetik datozen kontzeptuak erabiliz, “adierazle nagusia” deritzona izango litzateke eskumako populismo honen ezaugarri nuklear

bat: liderrak oso leku berezia hartzen du, politikaz gozatzen dakiela-suposatzen-den-subjetu suertatzen da. Michiganen bizi dela nabaritzen zaio euskaldun honi, eta Trump fenomenoaren inguruko gogoetek eta adibideek pisu handia hartzen dute.

Bigarren populismo mota ezkerreko populismoa litzateke. Joseba Gabilondo Lacanen kontzeptuez ere baliatzen da horren deskribapena egiteko. "Sintomen" populismo ezkorra litzateke hau: elite globalen kontrako jarrera negatiboa adieraziko luke, askotan alternatiba barik, baina ozen esaten diena "ez dakizuela badakigu", edo bestelako terminoetan, psikonalitikoetan, "badakigu elitea kastratuta dagoela". Sintomen populismoa, gainera, kutsakorra da, herri batetik bestera pasatzen da errez, edo protesta mota batetik bestera. Eta boterekiko destitutzailea bihurtu daiteke, hor dago bere potentzialtasuna. Hemen sartuko lirateke 15M edo *Occupy* bezalako mugimenduak, eta Podemos edo Syriza bezalako saiakera politiko berriak; askotan bere izaera oso eztabaidagarria izan bada ere, Joseba Gabilondok Italiako *Movimento 5 Stelle* ere sartzen du multzo honetan, mugimendua ezker-eskuin dikotomia hori hoberen ezabatu duena izanik. Baina Gabilondok gaur egun izugarriko indarra hartzen ari den mugimendua aipatzen du modu berezi batean: (trans)feminismoa. Eta arlo horretan bor-bor dauden debateak jasotzen ditu, ikuspegi horretatik ere oso testu interesantea osatuz; Mari Luz Estebanen ekarpenek pisu berezia hartzen dute liburuan.

Baina imaginario berrien garapena bestelako prozesu popularretan ere ikus daiteke, non eliteen kontrako antagonismoa eta subiranotasunaren aldeko aldarria zentralak diren. Hala nola Katalunia (Letamendia, 2018) edo Eskozia (Azkune, 2016) bezalako mugimendu soberanistetan, non nazionalismo identitario eta kultural klasikoa baino sintomen populismoaren ezaugarriak topa ditzakegun, eta kontu materialak eta demokratikoak irizpide nagusia diren.

Hau guztia horrela izanik, liburuak mugimendu populisten inguruan ikuspegi orokorra ematen du, globala, globalizazioaren garaian. Izan ere, populismoaren gainean antolatzen diren ekitaldi zientifikoetan ikuspegi bananduta agertzen da askotan: adibidez, Europako iparraldean egiten direnetan atentzioa batez ere eskumako populismoan jartzen da (*Brexit*, Pegida bezalako mugimenduak, *Alternative für Deutschland...*), hegoaldean egiten direnean, aldez, ezkerreko populismoak hartzen du lekua (15M, *Movimento 5 Stelle...*). Joseba Gabilondo populismoaren ikuspegi orokorra ematen saiatzen da, eta bere testuinguruan kokatuta: globalizazioa eta berak ekarri dituen efektuak.

Populismo eta globalizazioaren analitika Joseba Gabilondok ondorio bat ateratzen du: subiranotasunaren aldarria globalizazioaren eliteekiko potentzia destitutzailea izan daiteke. Baina subiranotasuna globalizazioaren markoan ulertu behar da. Bestela, eta adibide hau askotan aipatzen eta aztertzen du Gabilondok, Syrizarekin gertatu zena errepika daiteke.

Dena den, mugimendu hauek guztiak globalizazioaren kontrakoak dira, des-globalizatzaileak. Izan ere, globalizazio prozesuak berak arazo estrukturalak baditu, muga ekologikoak, beroketa klimatikoa edo erregaiei agortzea kasu; Richard Sennett (2009) krisi hasieran des-globalizazioaz hasi zen berbetan. Geopolitikan ere botere oreka berriak ari dira agertzen. Eta elite neoliberalak ere hasi dira des-globalizazio prozesuak martxan jarritz, kontrolatu nahian; European martxan jarritako austeritate politikak horrela ulertu daitezke. Populismo berria globalizazioaren efektua bada, kondizio ekidinezina, Gabilondok esaten duen bezala, horren garapenarekin jokoan dagoena da des-globalizazioa zelari eta nork gidatuta egingo den.

Liburuaren azkenengo zatian Gabilondok debatea eta hausnarketak Euskal Herrira ekartzen ditu. Bere aburuz, euskal subiranotasunaren aldarria elite global zein europarren kontrako ere izan behar da, sintomen populismo destitutzailearekin kutsatuta. Bestela, aurrera egitea zaila izango da, ez baitu gizartearen asmoekin errez konektatuko, eta arrakastatsua izanez gero ere, Grezian bezala bukatzeko arriskua gerta daiteke: independenteak agian, baina subiranotasunik gabekoak, troikaren agindupean. Imanol Galfarsorok liburuaren hitzaurrean erantzuten dio: nahiago duela independentzia nahiz eta subiranotasunik gabekoa izan, pauso inportantea bailitzatekeela berez, hortik abiatzeko. Baina nago gakoa aurreko fasean dagoelakoan: subiranotasunaren aldarriak sintomen populismo horrekin bat

egin behar du, kutsatu behar da, horrela oihartzun sozial zabala izateko, gehiengoak lortzeko. Sintoma populistak moduan ulertu behar dira Euskal Herrian hain arrakastatsuak izaten ari diren azkenengo mobilizazioak, feminismoa edo pentsionistenak kasu.

Euskal Herrian guztiz sartuta, lurretik kanpoko begirada horrekin, Gabilondok partidu subiranisten analisi bitxia egiten du. Multzo horretan EAJ eta EH Bildu sartzen ditu, baina baita ere Podemos, partidu berriak erabakitzeko eskubidea plano teorikoan behintzat onartzen baitu. Gabilondok lurretik kanpoko begiradari beste bat gehitzen dio: psikoanalistarena. Dibanetik pasatzen ditu hiru partiduak, eta emankorra den joko batean, bakoitzari diagnostiko psikoanalitiko bat ezartzen dio. Hala, EAJrentzat psikosia litzateke, euskal oasia eta kudeaketa onaren imaginarioaren eta bere benetako agenda neoliberalaren artean dagoena. EH Bilduren diagnostiko psikoanalitiko fetitxismoa litzateke: planteatzea independentziarekin eta sozialismoaren kontsigna hutsarekin dena konponduko litzatekeela, sozialismoa eta independentzia fetitxe ideologiko gisa erabiliz. Podemosen gaitza, ordea, neurosia litzateke, globalizazioarekiko dilema neurotikoa, *Syritzaren sindromea* deitzen duenetik datorrena.

Michiganetik euskal lurretara egindako hurbilketa honetan, Joseba Gabilondok berak onartzen du liburuaren sarreran, ez dago proposamen zehatzik. Asko jota, zehatzena zera izan daiteke: subiranotasunaren aldeko proposamenak Europatik eskapu egin behar du, benetako subiranotasuna lortu nahi bada. Proposamen nagusia, orokorragora, euskal herritarrok gure partikularitasunetik abiatu behar garela, hortik sintomen populismo destitutuzalearekin kutsatzeko. Gabilondoren ustean, gure historia ez da unibertsala, baina diferentzian gozatu beharrean, gure partikularitasun hori populismo aurrerakoi ez-neoliberal eta ez-postinperialista bihurtu behar dugu, elkarrekiko kutsaduraz beste sintomekin (feminismoa, klase borroka, euskara...) bateratuta. Sintomen politika negatiboaren dinamika kutsakorra areagotzea litzateke gakoa.

Dena den, Euskal Herriko egoera sozio-politikoari liburuak egiten dion ekarpen nagusia, proposamen horiek baino, testuinguru globalaren analisi bikaina da, munduan (edo behintzat Mendebaldean) gertatzen ari diren aldaketak, eta sortzen ari diren fenomeno sozial eta politiko berriak, ulertzeko ezin hobea. Hortik soilik bakoitzak gero atera ditzake ondorioak. Izan ere, azpitituluari “euskal independentzia” agertzen bada ere, hau ez da gehien bat balizko independentziari buruzko liburu normatibo edo boluntarista bat; independentzia prozesu globaletan barruan kokatu egiten du, testuinguruaren ematen dio. Eta testuinguruaren analisia da bere ekarpen nagusia.

Esan bezala, Mendebaldean gertatzen ari diren aldaketak eta fenomeno sozial eta politiko berriak ezagutzeko eta hausnartzeko liburu ezinbestekoa da. Egungo debate teorikoen gida ere bada lana, Joseba Gabilondo puntako debateak jaso eta beraiekin hizketan aritzen da, postmarxismoa (Zizek, Badiou, Ranciere) edo feminismoa kasu. Formaziorako oso baliagarria den liburu bat ere bada, beraz. Gainera, oso modu argian eta didaktikoan egiten du; liburu oso erreiz irakurtzen da, eta hori ere eskertu beharrekoa da. Askotan Gabilondoren bezalako ezagutza intelektualak testuak ilundu egiten ditu; beste batzuetan testu ulergaitzak bilatzen dira, egile postmoderno askorekin gertatzen denez. Ez da liburu honen kasua, are gehiago, Gabilondok oso erreza ez den zerbait lortzen du liburu honetan: Lacanen ekarpenak gertakari sozial eta politiko berriak ulertzeko lagungarriak izatea oso modu argi batean.

Beraz, oso ekarpen bikain eta gomendagarri baten aurrean gaude. Ia ezinbestekoa. Maisuki egiten du mundu globaletik Euskal Herriko bidai zuhurra Michiganan bizi ei den euskaldun bakar honek.


Erreferentziak

ALONSO, L. E. eta FERNÁNDEZ, C. J. (2013): *Los discursos del presente. Un análisis de los imaginarios sociales contemporáneos*. Madrid: Siglo XXI.

AZKUNE TORRES, J. (2016): “Democracia, soberanía y populismo en la unión europea: La emergencia de la izquierda independentista escocesa”. *Clivatge*, 4, 31-60.

- DEL AMO CASTRO, I. A. (2017): "El retorno del pueblo", in E. Díaz Cano eta R. L. Barbeito (arg): *XV Premio de Ensayo Breve de la Asociación Castellano-Manchega de Sociología "Fermín Caballero"*, 63-85. Toledo: ACMS.
- FRAZER, N. (2017): "The End of Progressive Neoliberalism". In: *Dissent*, January 2.
- JAMESON, F. (1998): *Teoría de la postmodernidad*. Madrid: Trotta.
- LACLAU, E. (2005). *La Razón Populista*. Buenos Aires: FCE.
- LETAMENDIA ONZAIN, A. (2018): "Movilización, represión y voto: rastreando las claves del referéndum de autodeterminación del 1 de octubre de 2017 en Catalunya". In: *Anuari del conflicte social 2017*.
- SENNETT, R. (2009). "La desglobalización ha empezado, no volveremos al viejo régimen". *El País*, abenduak 22.
- YÚDICE, G. (2002). *El recurso de la cultura. Usos de la cultura en la era global*. Barcelona: Gedisa.
- ŽIŽEK, S. (2009). *En defensa de la intolerancia*. Madrid: Sequitur.

Ion Andoni del Amo Castro



GONZÁLEZ-ALLENDE, Iker; ASCUNCE ARRIETA, José Ángel (Eds.)
El mundo está en todas partes. La creación literaria de Bernardo Atxaga

Barcelona : Anthropos, 2018
 318 p. : il. ; 21 cm
 ISBN: 978-84-17556-02-0

Bernardo Atxagaren sorkuntza literarioa oinarri, hainbat ikerleren artikulua biltzen dituen bilduma argitaratu dute Iker González-Allende eta José Ángel Ascunce Arrieta editore lanetan aritu diren bilduman. Ascunce Deustuko Unibertsitateko katedradun emerituak XVI-XVII eta XX. mendeetako espainiar kulturaren historiaz jardun ohi du eta González-Allende literatura espainiarreko XX. eta XXI. mendeetako katedraduna da Estatu Batuetako Nebraska-Lincoln unibertsitatean. Beraz lanak nazioarteko oihartzuna hartzen du, euskal esparru kulturaletik kanpora begirakoa; batez ere, eremu gaztelaniadun eta anglosaxoniarrera begira. Hortik datorke aurrerago azalduko den ikuspegi literario teorikoen aniztasuna bermatzea kritikari adituen bidez eta Atxagaren lanaren oinarritzko alderdiak tartekatzea artikuluz guztietan, edo are idazleari berari bere lanaren inguruko nondik norakoak galdetuz osatutako elkarrizketak irekitzea liburua. Horrek, lanen jatorriak bilduma testuinguru kulturalen kokatzen laguntzen duela pentsatzera garamatza, artikuluz gehienetan baitira Atxagak eremu literarioan izandako eraginarekiko aipamenak. Aurrerago ikusiko dugu bilduma idazlearen